

FUNTSEZKO ELKARTEA

Ezinbestekoa da aliantzak edo harremanetan jartzea beste enpresakin, zure enpresa onurak lortzeko. Ondo aztertu behar den gauza bat da, enpresa aurrera eramateko.



Gure kasuan pentsatu dugu harremana sortzea baserri etxeekin, baserri eskolekin, denda desberdinekin... Ekoiztutako produktuak dendariari eman ahal dizkiogu gure produktuak saltzeko.

Enpresa aurrera eramateko bazkideak oso garrantzitsuak dira eta gehien bat izango dira familiak, gurasoak, adin nagusiko pertsonak...

Garrantzitsua da ere bezeroen iritzia jakitea, gure baserri etxearen parte direlako eta haiei esker posible izango da gure proiektua aurrera joatea.

4 hezitzaile osatzen ditugu baserri etxe hau eta bakoitzak funtzio edo rol bat finkatuta dauka. Funtzioak aldatu daitezke, guztiok gai garelako tailer guztiak aurrera eramateko.

- Maider: Plastilina tailerrak gidatuko ditu.
- Julen: Xaboi tailerrak gidatuko ditu.
- Onintz: Ortua eta animalien tailerrak gidatuko ditu.
- Maialen: Ogiaren tailerra gidatuko du.

Txangoak: Guztiak txangoetara joango gara.